




**Euskaltelek itzultako eta  
ekoiztutako eskuliburua**



Mi 9  
Erabiltzailearen eskuliburua



## Eskerrik asko Mi 9 aukeratzeagatik

Luze sakatu pizteko botoia, gailua pizteko.

Jarraitu pantailan agertzen diren argibideei gailua konfiguratzeko.

## Informazio gehiago izateko.

Sartu gure webgune ofizialean: [www.mi.com](http://www.mi.com).

## MIUI

Mi 9 gailuak MIUI du aurrez instalatuta, Androiderako gure sistema eragilea. Eguneraketak sarri egiten ditu, eta erraz erabiltzeko funtzioak gomendatzen dizkie munduko 200 milioi erabiltzaileri baino gehiagori. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [www.miui.com](http://www.miui.com).

## SIM txartelaren erretilua:



## SIM dualari buruz:

- 4G teknologia darabilen SIM duala erabili ahal izateko, ezinbestekoa da tokiko telekomunikazio-operadoreek zerbitzu hori ematea; baliteke eskualde guztietan ez egotea aukera hori.
- Bateragarria da NanoSIM dualekin. Bi zirrikituak SIM txarteletarako erabiltzean, bietako edozein konfiguratu daitezke txartel nagusi gisa.
- Eskualde eta telekomunikazio-operadore guztiek ez dute VoLTE zerbitzua.
- Sistemaren eguneraketak sarearen optimizazioa gertatzen denean aplikatu daitezke. Informazio gehiago behar baduzu, ikusi gailuan sistemaren zer bertsio erabiltzen ari zaren.



Produktua behar bezala birziklatzea. Ikur honek adierazten du produktua ez dela bota behar etxeko ohiko hondakinekin, EBn.

Hondakinak kontrolik gabe botatzeagatik ingurumenari eta gizakien osasunari kalterik ez eragiteko, birziklatu arduraz, baliabide materialen berrerabilpen jasagarria egiteko.

Gailua modu seguruan botatzeko, erabili bilketa- eta itzultze-sistemak edo jarri harremanetan produktua erosi zenion saltzailearekin.

Ingurumen-adierazpenari buruzko informazioa jasotzeko, ikusi esteka hau:<http://www.mi.com/en/about/environment/>

## KONTUZ

BATERIA DESEGOKI BATEKIN ORDEZTUZ GERO, LEHERTZEKO ARRISKUA DAGO. ERABILITAKO BATERIAK BOTATZEKO, HARTU AINTZAT JARRAIBIDEAK.



Entzumen-arazorik ez izateko, ez erabili bolumen altua denbora luzez.

Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua jasotzeko, ikusi erabiltzailearen eskuliburua esteka honetan:<http://www.mi.com/en/certification/>

## Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua

- Irakurri hemen jasotzen den segurtasun-informazio guztia gailua erabiltzen hasi aurretik.
- Baimendu gabeko kableak, kargagailuak edo bateriak erabiltzen badituzu, sua, leherketak edo beste kalte batzuk sor daitezke.
- Zure gailuarekin bateragarri diren osagai baimenduak bakarrik erabili.  
Telefonoak behar bezala funtzionatzeko temperatura-tartea: 0 °C - 40 °C. Aipatutako temperatura-tarte horretatik gora edo behera erabiltzen baduzu gailua, kalteak eragin diezazkiokezu.
- Zure gailuak bateria bat baldin badu, ez saiatu hura ordeztan, kalterik ez eragiteko bateriari edo gailuari berari.
- Gailua kargatzeko, gailuarekin emandako eta baimendutako kablea eta kargagailua bakarrik erabili. Beste kargagailu batzuk erabiliz gero, suteak edo deskarga elektrikoak gerta daitezke, edo kalteak jasan ditzakete gailuak edo kargagailuak berak.
- Kargatzen amaitu ondoren, deskonektatu kargagailua gailutik, baita korrante-hargunetik ere. Ez edukia gailua kargatzen 12 ordu baino gehiago.
- Birziklatu bateria, eta, botatzekotan, ez bota etxeko ohiko zaborrarekin batera. Bateria behar bezala erabiltzen ez bada, sute bat edo leherketa bat gerta daiteke. Gailua, bateria eta osagaiak botatzeko edo birziklatzeko, jarraitu tokiko araudiei.
- Ez desmuntatu, ez kolpatu, ez zanpatu eta ez erre bateria. Bateria deformatuz gero, erabiltzeari utzi berehala.
  - Ez eragin zirkuitulaburrik baterian, ez dadin gehiegi berotu eta ez dezan erredurarik edo beste zauririk eragin.
  - Ez jarri bateria oso temperatura altua dagoen lekuetan. - Gehiegi berotuz gero, leherketaren bat gerta daiteke.
  - Ez desmuntatu, ez kolpatu eta ez zanpatu bateria, ez dadin gertatu bateriako likidoaren jariorik, eta ez dadin gehiegi berotu edo lehertu.
  - Ez erre bateria, ez dadin gertatu sutarik eta leherketarik.
  - Bateria deformatuz gero, erabiltzeari utzi berehala.
- Eduki ezazu gailua lehor.
- Ez saiatu gailua zure kontura konpontzen. Gailuaren atalen bat ez baldin badabil behar bezala, jarri harremanetan Mi-ren bezeroarentzako arreta-zerbitzuarekin, edo eraman gailua konponketa-zentro baimendu batera.
- Beste gailu batzuk konektatzeko, jarraitu haien eskuliburuetakoa jarraibideei. Ez konektatu gailu honekin bateragarriak ez diren gailuak.
- AC/CC egokigailuen kasuan, harguneak ekipotik gertu egon behar du, erraz iristeko moduko tokian.



## Segurtasun-neurriak

- Errespeta itzazu, egoera edo inguru espezifikoetan, telefono mugikorraren erabilera mugatzen duten lege edo arau guztiak.
- Ez erabili telefonoa leku eta egoera hauetan: atmosfera lehergarriak dauden lekuetan, leherketak gerta daitezkeen lekuetan, hala nola zerbitzuguneetan, itsasontzi-bizkarren azpian, erregaiak edo produktu kimikoak lekualdatzeko edo gordetzeko instalazioetan edo aireak produktu kimikoak edo partikulak (alea, hautsa edo hauts metalikoa) dituen lekuetan.
- Kasu egin haririk gabeko gailuak (hala nola zure telefonoa eta beste irrati-ekipo batzuk) deskonektatzeko dioten seinaleei. Itzali zure telefono mugikorra edo haririk gabeko gailua leherketa-eremu batean bazaude edo "bi noranzkoko irrati-aparatuak" edo "gailu elektronikoak" itzaltzeko agindua ikusten baduzu, interferentziarik gerta ez dadin eraisketa-operazioetan.

Ez erabili gailua ebakuntza-geletan, larrialdiko geletan edo erietxeetako arreta intentsiboko unitateetan. Bete ospitaleetan eta osasun-zentroetan indarrean dauden arauak. Galdetu medikuari eta gailuaren fabrikatzaileari, telefonoaren erabilerak zure gailu medikoaren erabilerarekin interferentziak eragin ditzakeen jakiteko. Interferentziarik egin ez dezan taupada-markagailuarekin, 15 cm-ko distantzia utzi behar da gutxienez telefono mugikorraren eta taupada-markagailuaren artean. Horretarako, taupada-markagailuaren kontrako aldeko belarran erabili telefonoa, eta ez ezazu eraman bularraldeko poltsikoetan. Ez erabili telefonoa audifonoetatik, kokleako inplanteetatik eta antzekoetatik gertu, gailu medikoekin interferentziak saihesteko.

- Errespetatu aire-segurtasuneko arauak, eta itzali telefonoa hegazkinean, beharrezko denean.
- Ibilgailu bat gidatzen ari zarenean, erabili telefonoa indarrean dauden trafiko-legeak eta -arauak kontuan hartuta.
- Elektrizitate-deskargarik ez gertatzeko, ez erabili telefonoa kanpoan, ekaitza denean.
- Telefonoa kargatzen ari baldin bada, ez erabili deiak egiteko.
- Ez erabili telefonoa oso leku hezeetan; esate baterako, bainugeletan. Erabiliz gero, deskarga elektrikoak, lesioak edo suteak gerta daitezke, eta kalteak jasan ditzake kargagailuak.

## Segurtasun-oharra

Zure telefonoaren sistema eragilea eguneratzeko, erabili sistema eguneratzeko funtzioa, edo zoaz gure saltoki baimendu batera. Softwarea eguneratzeko beste bideren bat erabiltzen baduzu, besteak beste, gailua kaltetu egin daiteke, datuak galdu ditzakezu eta segurtasun-arazoak izan ditzakezu.

Produktu honetako laserra 1 klaseko laser bat da.

## EBren araudiak

### Irrati-ekipoen direktibarekiko adostasun-deklarazioa

Xiaomi Communications Co., Ltd.

Honen bidez, Xiaomi Communications Co Ltd-ek adierazten du GSM/GPRS/EDGE/UMTS/LTE telefono mugikor honek, zeinak Bluetootha eta M1902F1G wifia baititu, Ekipo irrati-elektrikoei buruzko 2014/53/UE Direktibaren oinarritzko baldintzak eta beste xedapen batzuk betetzen dituela. Hemen duzu Europako adostasun-deklarazioaren testua osorik: [www.mi.com/en/certification](http://www.mi.com/en/certification)

Telefonoa gorputzetik gertu eramanda egindako SAR probetan, 5 mm-ko tartea utzi da telefonoaren eta gorputzaren artean.

Gailua gorputzetik gertu edukitzeari dagokionez, irrati-maiztasuneko esposizioari buruzko jarraibideak betetzeko, tarte hori utzi behar da, gutxienez, gorputzetik.

Erabiltzen duzun osagarria onartua ez bada, ziurtatu erabiltzen ari zaren produktuak ez duela metalik, eta gorputzetik lehen aipatutako distantziara duzula telefonoa.

Hargailua: 2. kategoria



## Lege-informazioa

Gailu hau EBko estatu guztietan erabil daiteke. Kontsultatu gailua erabiliko duzun tokiko arauak, tokikoak nahiz estatukoak. 5150 - 5350 MHz-ko maiztasun-mailan, eraikinen barruan bakarrik erabil daiteke gailua, herrialde hauetan:

AT	BE	BG	HR	CY	CZ	DK	
EE	FI	FR	DE	EL	HU	IE	
IT	LV	LT	LU	MT	NL	PL	
PT	RO	SK	SI	ES	SE	UK	

Ziurtatu kargagailuak IEC60950-1 / EN60950-1-eko 2.5 klausulako baldintzak betetzen dituela, eta tokiko eta estatuko araudiaren arabera probatu eta onartu dela.

## Maiztasun- eta potentzia-bandak

Telefono mugikor honek maiztasun-banda hauek ditu EBn, eta irrati-maiztasuneko potentzia maximoa.

GSM 900: 35 dBm

GSM 1800: 32 dBm

UMTS banda 1/8: 25 dBm

LTE banda 1/3/7/8/20/28/38/40: 25,7 dBm

Bluetooth: 20 dBm

Wifia, 2,4 GHz-eko banda: 20 dBm

Wifia, 5 GHz-eko banda: 5150~5350 MHz: 20 dBm, 5470~5725 MHz: 20 dBm,

5725~5825 MHz: 14 dBm

NFC: 13,56 Mhz < -5,40 dBuA/m en 10 m

## FCCren arauak

Gailu honek FCCren araudiaren 15. atala betetzen du. Erabili ahal izateko bi baldintza hauek bete behar ditu: (1) gailu honek ezin du interferentzia kaltegarriker eragin, eta (2) gailu honek jasotako interferentzia guztiak onartu behar ditu, baita nahi ez den funtzionamendua eragin dezaketen interferentziak ere.

Telefono mugikor hau probatu egin da, eta B motako gailu digitalen mugak betetzen ditu, FCCren araudiaren 15. atalari dagokionez.

Muga horien helburua da arazoizko babesa ematea etxeko instalazioetan kalteak eragin ditzaketen interferentzien aurrean.

Ekipo honek irrati-frekuentziako energia igortzen eta erabiltzen du eta erradia dezake, eta, jarraibideen arabera instalatzen eta erabiltzen ez bada, irrati bidezko komunikazioetan interferentzia kaltegarriak sor ditzakete.

Hala ere, instalazio zehatz batzuetan interferentziak sortuko ez diren bermerik ez dago. Ekipo honek interferentzia kaltegarriak sortzen baditu irrati telebistaren seinalea jasotzean (hori egiaztatzeko, ekipoa piztu eta itzali egin behar da), erabiltzaileari neurri hauetako bat edo batzuk erabiltzea gomendatzen diogu interferentzia horiek zuzentzeko:

- Aldatu antena hartzailearen orientazioa edo kokapena.
- Utzi tarte handiagoa ekipoen eta hargailuaren artean.
- Ez konektatu ekipoa hargailua konektatuta dagoen zirkuitu bereko korrante-hartune batera.
- Irrati/telebista gaietan aditua den banatzaile edo teknikari bati laguntza eskatu.

## **Irrati-maitasunaren esposizioari buruzko informazioa (SAR)**

Gailu honek irrati-uhinekiko esposizioari buruzko lege-eskakizunak betetzen ditu. Irrati-maitasuneko (IM) energiarekiko emisio-mugak ez gainditzeko diseinatuta eta eginda dago gailu hau. Haririk gabeko gailuen esposizio arauak SAR (Absortzio Espezifikoko Tasa, ingelesezko "Specific Absorption Rate") izeneko neurri-unitatea erabiltzen du. FCCren arauak gomendaturiko SAR muga 1,6 W/kg da. Gailu hau gorputzetik gertu erabiltzeari dagokionez, FCCk irrati-maitasunarekiko esposizioari buruz jarritako arauak betetzen ditu (gorputzetik 1,0 cm-ko gutxienezko tartearekin eta metalik gabeko osagarriekin erabiltzeari dagokionak). Beste osagarri batzuk erabiliz gero, ezin da bermatu FCCk irrati-maitasunarekiko esposizioari buruz jarritako arauak beteko direnik. Gorputz-osagarriak erabiltzen ez baduzu eta gailua belarran erabiltzen ez baduzu, gorputzetik 1,0 cm-ra jarri telefono mugikorra, piztuta dagoenean.

## **FCCren oharra**

Aldaketak egin badira eta adostasunaren alde erantzuleak espresuki onartu ez baditu, ekipoa erabiltzeko baimena gal dezake erabiltzaileak.

## **Etiketa elektronikoa**

Gailu honek ziurtagiriari buruzko informazioa ematen duen etiketa elektronikoa bat du. Etiketa hori ikusteko, sakatu: Ajustes > Información del teléfono > Certificación, edo hautatu Ajustes, eta idatzi, idatzi "Certificación" bilaketa-barran.

## **Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua**

10g-ko SAR-muga: 2.0 W/kg, SAR-balioa: Burua: 1,389 W/kg,  
 Gorputza: 1,301 W/kg (5 mm-ko tarteak).  
 1g-ko SAR-muga: 1.6 W/kg, SAR-balioa: Burua: 0,99 W/kg,  
 Gorputzean: 0,82 W/kg (10 mm-ko tarteak).  
 Sarbide-puntua: 1,04 W/kg (10 mm-ko tarteak).

## **Tenperatura: 0 °C eta 40 °C bitartean**

Instalatu kargagailua gailutik gertu, erraz iristeko toki batean.

Modeloa: M1902F1G

1902 zenbakiak adierazten du noiz merkaturatu den produktua: 2019/02.

## **Arduren deskargua**

Erabiltzailearen eskuliburu hau Xiaomik edo haren tokiko filialak argitaratu du. Xiaomik beharrezkoak diren hobekuntzak eta aldaketak egin ditzake Erabiltzailearen eskuliburu honetan, edozein unetan eta aurrez jakinarazi gabe, arrazoi hauengatik: akats tipografikoak, informazioaren zehaztasunik eza edo programen eta/edo ekipoen hobekuntzak. Baina aipaturako aldaketa horiek Erabiltzailearen eskuliburu honen hurrengo edizioetan erantsiko dira. Irudi guztiak adibide gisa erabiltzeko dira; baliteke esku artean duzun telefonoaren berdinak ez izatea.

Manufacturer: Xiaomi Communications Co., Ltd.  
Manufacturer postal address: The Rainbow City  
of China Resources, No. 68, Qinghe Middle Street,  
Haidian District, Beijing, Txina 100085 Brand: BM  
Modeloa: M1902F1G All rights reserved by Xiaomi  
Inc.